


HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

11. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta. 1987ko MARTXOA



KARLOS LAZKANOTEGI JAUREGIK, herriko beste edozein gizon ezagunek bezala, Karlosek ere ez du aurkezpen berezirik behar. **Junkal Ugarte** du emaztea, eta seme bi eta alaba bat. Kantore bezala, urteak dira tenore kuerdan abesten duela parrokia-ko koroan.

Eta beste kultur ekintzetara begiratuz, bera izan zen **AMUTZAK KULTUR TALDEKO** sortzaile eta lehen Lehendakaria, eta gero urteetan zehar **euskal dantzen irakasle** aspergabea.

Bera dakargu gaur gure orrira, igaro berri diren ihauterietan berari eman diotelako **LEHENDABIZIKO SARIA**.

• • •
Ale honek **hamaikagarren zenbakia** daraman arren, ba da urtebete **HONDARRIBIA** euskarazko aldizkari honekin hasi gizona. Badakigu ez dela erraza guztien gustokoa egitea halako lana, zeren batzuren tzat sinplegia da, eta besterentzat du berri, nahiko lana ematen die euskaraz irakurri beharrak.

Irakurleen eritziak jakiteko galdere batzu prestatuko ditugu hurrengo alerako, horrela, erantzunak jasoz, hobetzen joan gaitezen Hondarrribian ateratzen aldizkari bakarra.

• • •
Zalantzarik ematen ez diguna, behintzat, hauxe da: **euskaraz jarraituko dugula, euskara delako hondarrribiarren hizkuntza.**

HONDARRIBIA ETA ALKOHOLA

Alkohola droga da. Nahiz eta **Hondarrribian** barruaraino sartua eta erabat onartua egon. Bere abusoak askotan kalte izugarriak ekartzen ditu. Bai osasun aldetik, familia barruan, lantokian eta abar.

Alkoholodun edariak, ura eta alkohol etilikoaren bitartez eginak daude, eta batzuk kolorante eta azukrez ere bai.

Elikadura aldetik, gehienak ez dute baliorik, kaloriak besterik ez du gorputzak aprobetxatzen.

Droga bezela depresiboa kontsideratuta dago, nahiz eta itxuraz bere eraginak bestaldekoak izan. Ematen duen indarra, kemena, bizkortasuna eta abar, faltsoak dira. Moteltasuna, erreflejo gutxitzea, begi bista lainotua eta ekilibrio gaitzea dira bere ondorio batzuk.

Alkoholaren ohitura hain onartua daukagu, edozer aitzeki nahikoa da trago batzuk edateko. Elkartzen garenetan, beharrezkoa egiten zaigu.

Ospakizun guztietan ez dadila alkoholik falta. Ardoarekin hasi eta edari gogorrenekin bukatu. Zenbat aldiz, gurasoek, geuk erakusten diegu gure gazteei edariak dastatzen. Txin txin dela medioz, lehen-dabiziko txanpain kopa etxean hartzen du-

te. Zurmoak eta alkohol gabeko beste edari batzuk askoz egokiagoak dira gazteen tzako.

Euskalherri guztian alkohol asko kontsumitzen da eta **Hondarrribian** ere bai. Hemengo herri giroa aproposa da hortarako.

Hondarrribian beti izan da edariarenganako ohitura haundia, baina orain beste egoera berri bat sortzen ari da lehengoaren gainez. Urtarrilako alean esaten genduen bezela, gazteek gogor hasi dira **Hondarrribian** alkoholodun edariak kontsumitzen, batez ere aste buruetan.

Edarizale guztiei eta gehien hasi berriak direnei, idatzi honen bitartez, dei bat egin nahi genieke droga honi buruz sensibilizazio piskabat fortu nahian, kontutuan hartuta beudek direla gizarte honen itxaropena; gizon berriek idea berriekin gizarzte zuzen eta zoriontsuagoa antolatzeko.

Alkoholaren abusoak ondorio gogorrak sortuko ditu **Hondarrribian** osasun aldetik, eta bai familia arteko harremanetan eta lantokitan ere bai.

Hauek dira horietako batzuk:

Osasun aldetik, estomakako trastorno ugari, bai gastritis, diarreak, botakak eta



BASERRITARAKO KARTAK

Baserritako arazoak astintzen hasten gara, eta ez dute bukaerarik. Baiteren batek esan ere egingo du negarez jaio ginela, eta hala jarraitzen dugula.

Hala pentsatzen duenari esango nioke hamaika gauza, eta bat, hauex: Zergatik ez dugu jasotzen kartarik? Korreosetako kartak noski. Hondarribiko baserriak aurkitzen gara arazo honekin. Modu batera edo bestera, azkenean baztertuak izaten gara baserritarrak.

Grazia egiten dit neri telebistan eta Euskal Herriko dotoretasunak eta edertasunak agertu behar dituztenetan, **baserriak, metak, mendiak eta haranak** ateratzen dituztenean, baina gu, egia esan, bigarren mailako herritarrak gara.

Nafarroan, esate baterako, astean zehar bi aldiz igarotzen dira azken baserriraino, duen kartak eramateko, Hondarribian berriz, zenbat eta zenbat karta iristen dira epea pasata gero. Aurrezki Kuxakoak direla, kotxeen aseguruak, etxeak, edo juzgadukoak, eta abar luze luze bat.

Nik uste dut baserritarrok ere gure "erregearen" argazkia hartzen dugula ba sobretan, eta hori horrela izanik, zergatik ez dituzte gure etxetara ekartzen, herrian zehar egiten duen bezala? Eta ez, ibiltzen garen bezala, "**ba neri holako etxean utzi eizazu**", "**edo halako denda**", "**edo hango harategian**" ..., atabarr.



Simonenea

NEKAZARITZA

Fabore hauek ezagunari edo lagunari eskatu dezaiokegu, eta egunoro leku horretara joaten bagara. Baina juzgadotik, edo Diputaziotik, eta Udaletxetik, edo nik dakit nondik presakako karta datorrenean, zer?

Gure kartak Irunen edo Hondarribian hor ibiltzen dira bueltaka, ezagunen batek hartu arte, eta gero horrek gu ikusi arte. Ez pentsa gero, txantxetan ari garenik. Neuri zuzenki gertatu zait bi hilabeteko atzerapenarekin iristea kartak. Eta zer? Korreosetara joan keja ematera, eta korreosekoak lasai ederrean esan euren ez dutela zergatik joan beharrik baserritara, zeren euren legez herriko auzotatik 200 metrotik harago ez daukatela joan beharrik. Esate baterako, Amute auzotik inguruan diren 200 metro baino gehiago ez dutela zergatik kartarik zabaldu beharrik.

Berhin baino gehiagotan aditu dut Konstituzioaren aurrean guztiok berdinak garela. Ea ba noiz egiten duten hemen Nafarroan egiten dutena, eta Gipuzkoan bertan ere herri askotan egiten dena: astean berhin behintzat pasa kartak banatzen.

Nik uste dut gai honetan herriko Udalak zerbait esan edo egin beharko zuela, Korreosi bortxatuaz lagun bat jartzera lan hori betetzeko, ez bait dut uste lagun problemaik izango litzatekenik.

Ximon

abar. Larriagoak ere bai: hepatitis, zirkos, delirium tremens eta horelakoak askotan bere eraginak dira. Dakigun bezala, gaixotasun hauek heriotza eta zorotasuna ekar dezakete.

Haurdun daudeneri kalte izugarriak ekar diezakeite, batez ere jaio behar duenari, bai aurretik eta bai jaio ondoren.

Alkoholaren ohitura galtzea oso zaila da, adizio haundia sortzen du, beste droga askok bezala, bai fisiko aldetik, eta bai psikiko aldetik. Uterakoan, laguntza beharrezkoa izaten da sindrome de abstinentzia gogorra duelako, egon ezin eta sufrimendu ikaragarriakin.

Erelazio aldetik begirituaz, etxeko harremanak berriz erabat galdu daitezke. Jokiera aldatu, karakterra txartu, haserre erreza eta horrelakoak dira alkoholaren eraginak. Familiako giroa dena galtzen da eta kalte haundiena gazteei egiten zaie. Honen ondorioak haurrek, gehien bat, jasotzen dituzte, eta bai lagun artean edo eskolan garbi nabaritu daiteke, etxeko giroa errelejatzen dutelako eta askotan bizi gutzirako markatuta gelditu daitezke beundertasuna.

Alkoholikoak, lantokian ere arazo asko izaten dituzte, bai lan egunak galtzen dituztelako, lanaren kalitatea jeitsi, arduragalduta eta istripu arrisku gehio sortzen dutelako.

Alkoholikoaren gorputzak defetsa gutxiago edukitzen du eta gaixotasun gehio arrapa ditzake, eta azkenik, denok dakigun bezala, zirkulaziorik gertatzen dira. Arrazoin honegatik, Europako herrialde batzutan, alkoholikoen edariak hartu ondoren autoak gidatzea oso zigortua dago.

Ala ere kalterik haundiena pertsonaren deshumanizazioa izan daiteke. Bere nortasuna galdu, alkoholaren morroi bihurtuz bakardadea, isiltasuna, ilunpea, eta gehienean besteekiko konprentzioa eza gelditzen zaie: PERTSONAREN DESEGINTZEA.

OHARRAK

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 8etan, haurrentzat, Arratsaldeko 7,30tan, Portuan.

IGANDETAN:

Goizeko 8etan, Guadalupen.
Goizeko 8,30tan, Betharranen.
Goizeko 9etan, Amuten.
Goizeko 11etan, Portuan.

TXANDAKO OKINDEGIAK

Martxoak 19: Arratibel
22: Garmendia
29: Martinez
Apirilak 5: Arratibel
12: Garmendia
19: Martinez

TXANDAKO BOTIKAK

Martxoak 16-22: Mai
22-28: Iraola
29-31: Erauskin
Apirilak 1-5: Erauskin
6-12: Mai
13-19: Iraola

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBA

HERRI GIROA

SARA

1987
OTSAILAK
8

BERTSULARI EGUNA

T. HERNANDORENA-RI OMEN-ALDIA



Lehenbiziko albistetzat Lapurdiko Saran **TEODORO HERNANDORENA** jaunari, otsailaren 8an egin zioten omenaldia nahi dugu aipatu. Gizon ospetsu hau, 1898ko azaroaren 6an Zizurkilan jaioa izan arren, hogeita hamabi urtez bizi da Hondarribian, hemen mediku-horzarri bezala lan eginez azken urteetan. Abertzale, aurrelari, bertsoaio sortzaile, euskal pelikula egile, pilotazale, dantzatalderen pizkortzaile, eta abar, den gizonak Lapurdin jaso du aurtien txalo ugari. Jende asko hurbildu zen Sara herri politara.

- O -

San Nikolas kalean **HOTEL** berri bat egitea omen doaz. Garai bateko kontxa, Franco, Moriscot, Carlos... Eta oraindik Kai Berria haunditzaiek turismoa atzeratu egingo duela? Itxura guztiak alderantziz dira. Hotel eta ostatu berriak irekitzearekin, turismoa gehitu egingo da.

- O -

Kai Berriko arazoa bizi dago oraindik. Batetik, Euskadiko Eskerrak folleto interresgarria argitaratu du, Kaiari buruz historia, plano, iritzi eta planteamendua agertuz. Bestetik, erantzunak ere berehala izan ditu delako folleto horrek, alegia beste alderdi politikoen jarrerak agertu eta kritikatuz egiten dituela, baina beurena ez dutela garbi agertzen.

Eta zerbait esaten hasi ezkerro, gauzak garbi esan behar direla, eta ez jendea dudan utzi. Bestetik, PSOEko zinegotziek ere nota bat atera dut, Euskadiko Eskerraren esanak zuzenduz... Marejadilla en la Kosta, PNV eta E.A. isilik daude, bitartean. Eta Kai Berriaren alde agertu den alderdi politikoa bakarrik **HERRI BATASUNA** izan da.

Karnabaletan jendea majo ibili da. Juerga biziak egin dira, nahiko farra, eta nahiko farranda.

Udalak komisio bat egin zuen festa hauek antolatzeko. Elkarte guztiei deitu ondoren, **Klink Elkarte**, **Amute-kostako Auzo Elkarte**, eta **Marlaxka Elkarte** izan ziren karnabalak prestatu dituztenak, lau egunetako jaiak eginez.

Ihauteriak zenbat kostatu diren? Hona hemen kontu garbiak, Udalak ordainduak:

Larunbata	
Klink Fanfarrea	55.000 pta.
"Koxka" Musika-taldea	120.000 pta.
Igandea	
Marlaxka Fanfarrea	80.000 pta.
Klink Fanfarrea	80.000 pta.
Iturriotz eta Gurutzak Fanfarreak	175.000 pta.
Amute-kostako Gurdia	50.000 pta.
Klink Elkarteko 2 Gurdia	100.000 pta.
Sokamuturra	40.000 pta.
Gurdi-Lehiaketarako	90.000 pta.
Talde eta bakarkako mozarrotuen lehiaketarako plakak	6.000 pta.
Asteartea	
Xardinari lurremata	30.000 pta.
Klink Fanfarrea	50.000 pta.
Ustegabekoak	10.000 pta.

AUKEROKUNTUA GUZTIRA 886.000 pta.

Ihauterietako lehiaketak lan haundia eman die epaile jaunei. Juan Jose Lapitz, Jose Manuel Balerdi eta Basilio Silva izan dira horrenbeste lana hartu dutenak. Azkenik, hau izan zen gizon ospetsu hauen iritzia:

a) Bakarka. Sari bakarra: **KARLOS LAZKA-NOTEGI JAUREGI**, "AMONA" jantzi. Aipamen berezia: **MAITE ALKORTA**, Alkaingar sendian "ALMIRANTE" jantzi.

b) Taldeka. Sari bakarra: **KLINK Elkarte**, arlekin dama taldea. Aipamen berezia: **ALKAINDAR FAMILIA**, marinerok jantziak.

c) Gurdia. 1.º Saria. Klink-eko **GARA-GARDEOTEGI ALEMANA**
2n. Saria. Amuteko **ZUMARDIKO KIOSKOA**.

Ilkai Linazasorok badu beti aitzekiren bat bere izena egunkarietan agertzeko. Ez da izkutan bizi izateko egina, eta hala edo hala bere izena aipatu duan pertsonaia da. Oraingo honetan, "Hondarribia hipoteca su playa" izeneko panfletada batekin atera zaigu Donostiako egunkari batean. **Tolosako alkate izan den gizon honi, herri hartako problemak konpontzeko eskatuko genioke, eta ez dezala astakeriarik esan, adibidez, Kai Berriaren arazoak favorece a un colectivo y perjudica a la ciudadanía en general. Lo que en castellano castizo se llama: "Desnudar un santo para vestir a otro".**

- O -

Zuloaga kalean egindako lanak bukatu dira, eta zebra-pasoak eta abar ederki daude. Besta kaleetan ez dira egingo konponketa lanik, udalen ez omen dagoelako dirudik horretarako. Bai ordea, Itasargi kalean, **Peñongo Buruxka etxeparean** euria egiten duenean egiten den putzuak ueste dugu berehalako konponketa, merezi duela, zeren pasatzen den kotxe bakoitzak espaloian doanari ematen dion dutxa ez da edozein modutakoa izaten.

- O -

"Ura joanda gero egiten da presa". oraingoan aurrea hartu diegu, eta San Pedro kalean jarri da **lehenbiziko boca de riogo**, suteran bat gertatuko balitz ere. Gehiago ere jarriko dira, herrian zehar. Bitartean ez dadila sunik gertatu.

- O -

Lapurren sailari ez diegu oraingoan luzaera berezirik emango. Beti gauza bera kontatzea aspergarri gerta daitezkelako. Lapurrak hemen dabilatzala? Nor diren badakigula? Lotarik ez dutela jendearen aurrean **tan-kanpante** eta **komosinada** ibiltzeko? Tira, tira, baina hortik **PISZINA** bat ebastera, ba zeok alde ederra! Baina horraino iritsi dira, **pizina ebastera Sokoa karrikan**.

"Los ladrones somos jente honrada" zen pelikula baten titulua. **Saint-Maur ikastetxean** sartu diren lapurrak ere horietakoak izan dira. Gutxienez zazpi alditan sartu dira bisitariak **Saint-Maur monjen ikastetxean**.

- O -

Egunari batetan irakurri dugunez, 46 sagardotegi ziren Hondarribian gerra aurretik. Aldizkari honek jaso nahi lituzke 46 horien izenak, zeren hemendik urte gutxitara ia inor ez da biziko sagardotegi guzti horien berri jakingo duenik. Horregatik eskatzen diegu, dakitenei, Udaletxeko Euskara Azpizartordearekin jar dadila harremanetan, sagardotegien zerrenda egiteko.

Aitzol

GURE PERTSONAIA

KARLOS LAZKANOTEGI

Hondarribiko Ihauteriek berriro ere aurtun gorakada pozgarria izan dutela aitortu beharrean aurkitzen gara.

Ihauteriak parranda egiteko aukerako egunak gertatzen ari dira, eta jende alai eta umoretsuak hartarako hartzen ditu egun hauek, eta

"Triste bizi naiz eta" abestu beharrean, "Maria Jesus bihotzekua, bete hamaseigarrena" kantatzen du. Eta zer arraio! Nahi ezik ere etorriko dira egun ilunak eta goibelak. Goza dezagun ahal den bitartean.



Ostegun Gizen, Ostiral Argal, Larunbat Erregular, eta Igande Karnaba, plako edo potolo, zahar edo gazte, asko dira moztorturik ibili dena gure kaletan zehar. Haurrak izan ziren hasiera eman zietenak ihauteriei, eta alargun beltzak bukaera. Bitartean... Larunbat gaua, munduala izan zen. Igande eguerdia, berri, ukusgarria. **KLINK**, beti bezala, guztien gidari, txaranga, hada, karroza, eta guzti. Ondoren, **GU-RUTZE GORRIA**, kosako berberak bezala. **AMUTEKO AUZO**, aurtun ere, nota emanaz, nota hoberena gainera, Zumardiko kioskoan musikoak jotake ari zirelarik. Atzetik, **IPARRAGIRRE**, Gernikako Arborearen kantaria.

Desfilea polita zen benetan, baina ez zen amaitzen. Hemen zotorren **TOMAS**, erdi punki erdi makarra, ikusleei far egin eraziz.

ALKAINDRARRAK nola faltatuko ziren? Hauda urteroko talde ikusgarri eta denek zain egoten direna, Aurtun marinerio ziren, komandante eta guzti.

Alperrik da guk hemen guztien izenak ipintzea. Jende asko zen parte hartu zuena, eta asko hain ongi moztorturik zeu-

den, gure galderak airean geratzen ziren "nor da hori?" galdetzen genuenean. Hala ere inoren faltaz guztiz nabarmena izan bazen, **TOMAS HARAKINARENA** izan zen. Arabiako Jeko multimillonario petrodolarrez beteriko talonarioaz ikusi genuenetik, ueste gnuen **TOMAS KARNIZERUA** beti hor izango genuela.

Mozorrarik gabe ez dago Ihauterik. Ezta barren barrerik jaio behar den umorerik gabe. Biak bira beharrezko.

Mozorroa asmatzen, batzuk denboraz ibiltzen dira. Beste batzuri, ordea, kolpe-
tik okurritzen zaie.

Aurtengo Hondarribiko Ihauterietan, **KARLOS LAZKANOTEGI** izan da, epaileen uestez, moztorrarik politena eraman duena, eta berari eman diote Udalak eskaini zuten lehen saria.

KARLOS LAZKANOTEGI ez da ihauterietan pertsonaia berria. Urteoro ematen digu sorpresaren bat. Eta, gehienetan gainera, emakumez jantzita ateratzen zaigu.

—Zuk noiz pasatzen duzu hobeto?, galdetzen diogu Karlosi, larunbatean ala igandean?

—Larunbatetik igandera kanbio handia dago. Larunbatian izaten da ambiente gehiago, de disfrute, e? Badakizu, afalduta gero, girotuta zaude, eta ia ez dik ajolik deus ere. Gabian jende asko moztortzen da, eta ezin da konparatu ere egin igandeko desfilearekin.



—Zuk parte hartzen duzularik, asko disfrutatzen al duzu?

—Asko? Bai, horixe. Ez da asko behar ongi pasatzeko. Moztorrarako ere imajinarioa besterik ez da behar, eta nik hortatik asko diat. Aurtun ere, amona zaharrez jantzi, eta piska bat aurpegia betetzeko, antiojo erredondoak behar nituen, eta nire hilobak urrezko kolorekoak zituen, eta zer egin nuen?, zilar koloreko papera hartu, eta dena bueltatu egin nuen. Gero hortzak, paper beltza hartu, eta hortzak beltzatu...

—Ordularia ere modakoa ereman zenuen?

Noski. Ez al diote denek erlojuari patata deitzen? Ba nik, lokarriarekin patata bat lotu nuen, eta ordularia begiratu behar nuenen, etertzen nuen patata, eta begira zak ze grazia jendiar.

—Zergatik hartzen duzu parte ihauterietan?

Lehendabizi, barrerik jaiotzen zaidalako egun batzuk ongi igarotzea. Nik disfrutatu egiten dut, eta hori ez dit inork kentzen. Onena larunbata dela esan diat. Igandekoa, ofizialagoa da, eta ez da horrenbeste disfrutatzen. Baina desfilea ere oso ongi ikusten dut, bestela jende askok ezingo luke ezer ikusi, larunbatekoa San Pedro kalean bakarrik izanik, jendea ezin da beranduko ordu horietan hara joan.

Karrozak ere, gainera, ederrak izaten dira, eta musika asko dago, eta txaranga, eta animazio izugarria. Ikusi besterik ez dago zenbat jende etortzen den desfilea. Baina... lo que se dice disfrutar, hori larunbat gauetan egiten da.

—Nik kezka bat eduki izan dut batzutan, alegia, kanpotik moztortua eta animatu itxuraz ibili, baina barrerik agian giro alai batean sartu ezinik egon daitekela.

—Tira, tiral, halakorik ez da gertatzen. Karnabeletan disfrazatzen denak, badaki zertara doan, eta ongi pasatzera dijoala. Bestela hobe du etxean gelditu. Nik behintzat urteik urtera hobeto igarotzen dut, eta nahi baduzu galdetu besteei ere.

—Eskerrik asko, Karlos, **HONDARRIBIA** aldizkarirako egin diguzun harrera onagatik.

lon



ESPERANTZA GALDU

Bai. Honelaxe esan zidan lehen-goa Esteban, nere ikasle batek:

"Aurten nere hamasei urterekin agertu zaizkit neure bizitzako problema larrienak: nere inguruko arazoak argiago ikusten ditut, gorrotoa zer den badakit, nere herriaren egoera politikoarekin ez nago ados, gurasoekin buruhausteak ditut eta eskolan nota txarrak. Eskerrak nere neskak laguntzen nauela, eskerrak lagun onak baditudala; bestela neure burua hilko nukeela uste dut... Arian-arian bizitzeko esperantza galtzen ari naizela uste dut... Txikitari jendea ona zela uste nuen. Amaren bularretan konfiantza osoa jarria neukan,

hotza nuenean amak ez ziti tapatzen ninduen, eta gaixo nengoenen kontsolatu. Poliki-poliki ordea helduenganako konfiantza galtzen joan naiz, zeren izugarriko hutsaldiak jasan bait ditut haiengan-dik."

Estebanek ez daki laster ilusioak gehiago suntsituko zaizkiola oraindik, lagun batek, andregaiak, irakasle batek, leader politikoko batek, edota buruzagi erlijioso batek engainatuko duenean, haietako baten-engan konfiantza osoa jarria zeukalako.

Holako etsipenen ondoren pertsona batzuek sinesgaitzak bihurtzen dira: zen-baitetan uste dute, mirari batek, daukaten

arazoa konponduko diela, eta, dezepzio berriak hartzen dituztelarik, gidari baten magalean ezkutatzaren dira askatasun osoa galduaz; bestetan, diruaren, osparen, edota agintearen atzetik dabilta haien itxaropenik eza itotzeko.

Beste pertsona batzuek ordea, holako egurrak jasan ondoren, askatasun haundia gozatu dute, eta gai izaten dira berriro konfiantza beste norbaitengan jartzeko, lagun berriak, maisu berriak aurkitzeko, beste pertsonak maitatzeko.

Eta azken aukera hau da benetan desiratzeko dizudana, Esteban.

Guadalupe Artola

PASAIA ETA BIZIDUNAK

Hondarribiko paisaia, ingurua, txol ederra da.

Begira itsasaldera, Jaizkibelako telaitutxurako gailur luzera, parte zaharrenean auxazulu eta etxe-kantoieta hagi xuxen-etatik gora ikusi teillaieko zur landu ederra; urbazteretik bazoaz, berriz, untziak kolore bizitan kulunkan isladatzen dira zuretzat.

Alderdi guztietatik ikusten dugunak atsegin eta ederrez asetzen gaitu.

Baina paisaia honek berezko geldia du lege.

Paisaia hutsak berez erakusten digun ez da, halere, gaur nik adierazi nahi dudana. Izenburuan, bizidunak, jarri dut. Bada gure herrian harrigarria den zerbait: animaliek gure artean duten lekua. Hara, zeuk etxetik goizean irteterakoan eguneroko aurkitzen duzun txakurra; muturreko eta hanketako marroitiak kanpora, dena beltza da, eserita dago, gosaldia eta kalera irten berrian erakusten duen desafio planta horrekin. Hala dirudi. Baina ez da hala, kale bazter bateo babesean, abandonatua, ikusi baitzutenen atzo gabeen. Nortasun agerian duen zakur serio bat da, baina zurtza da. Eta, eguna joan, eguna etorri, animalia hau zure herriko paisaia sartu zaizu. Bada beste txakurrik ere, sobera! Batzu politik

eta dotore jantziak ere; haundi ikaragarriak direnak ere bai, katez lotuta erabili beharrean inor izutzeko kaleratuak diruditen horiek ere gure paisaian sartu dira.

Katuak ere hor daude gure ikusmirako espigoinaren sarreran, eta norbaitek tokiz aldatu edo ezkutaraziko balitu ez litzateke espigoina gaur den zirkoa izango; joan den elur-hotz-goiz batean, hamar-hamabi katu adarretara igoko ikusi nuten negu beltzean emandako fruituak balira bezala.

Baina bada animaliaz kanpo, gizakia ere, noski.

Paisaia eder honetan pertsonak gabiltz, hara eta honera, gehienetan alperrikakoa ez dena egiten: senar-emaitez haurtxo edo bilobekin espigoinera badoaz, ez dira etxetik delako baizik, edo ibiltzea bera atsegin zaielako; norbait patxadan eguzkia hartzen Butroingo pasealekura irten bada, eguzkia neguan gauza ederra delako da; hiruzpala gizon urdin, zangoak zabal eta besoak gurutzatuta, itsasora begira euren artean hizketan ari badira, ez da itsasgizona berez berrius delako, elkarren arteko duten komunikazio behar hori betetzeko modu eder bat delako da.

Honekin esan nahi dut, lotu eta askatu, askatu eta lotu, herrian zehar dabilzatenak ez direla berez Hondarribiak duen kaleko paisaia mugikor hau alperrik egiten.

Helduak eta haurrak egunez, parejak gauzez, paisaia bizia osatzen dute.

Bada honez beste, oso ukigarri gertatzen zaiguna: adineko pertsonak dira negupartean faltan botatzen hasten garenak; halako hor egoten zen beti, eta joan da; pauso zail-ukikor hartan emateamorenaren betekit ibiltzen zen aitona ez dugu gehiago hemen ikusiko.

Askotan gazteak ere joaten dira, bapatean!, zoritxarrez; halere, edur-ipar-izotz hauekin gure herriko paisaia betiko ezkutatu diren hauek ditut orain gogoan. Bai baitakit lehen paisaia berezko geldia duen lege, gizakiok geurez ari garela, eta jakin, herriko paisaia aldatzen; eta minez, batez ere dihoaztenak ezagunak ditugunean.

Paisaia aldakor bat besterik ez baigara.

Martin Ugalde



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobek

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

AROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

TXUNTUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

KULTURA

J. Sagarzazu Bilbon, eta Enrike Albizu Madriden

Gure herriko pintore ospetsuak gero eta arrakasta haundiagoa dute, ikusten denez eta irakurtzen ditugun kritikei egiten badiegu kasu. Oraingo honetan, **BILBOKO "Espin" Erakustokian** agertzen du bere obra artistikoa, J. Sagarzazuk, eta **Madrilgo Sokoa Galerian** E. Albizuk. Biei opa diegu arrakastarik haundiena.

Eskifaia Barzelonan

Herriko enbaxada artistikoa Euskal Herriko kanpora ere joan da; Eskifaia! abeslariak martxa honetan ozeano pazifikoko iletara ere laster helduki dira. Otsailaren 28an kontzertua eman zuten Barzelonan, eta inork ez digu esan, baina ongi aterako zitzaizela uste dugu.



Xabier Iridoy

Xabier Iridoy Izagirre Almaniara

Hemen dugu beste artista gazte bat, Alde Zaharreko Etxenagusia kalean bizi dena. Mutil honen eskuetan **akordeona** musika ederrenaren iturri bihurtzen da. Lehen ere Alemania eta beste herrialdeetatik lehen sariak jarriz da, eta hala ere ikasten eta ikasten jarraitzen du.

Oraingo honetan parte hartu behar duen txapelketa **Munduko Lehiaketarik Zailena** bezala dago kontsideratua. Txapelketa hau **KLINGENTHAL** (Alemania Demokratioan) jokatu da, maiatzaren 9tik 15era. Hemerikiz urteko mutil honek laguntza eskatu dio Udolari, haraino joateko gastoak oso haundiak direlako.

Guk, gure aldetik, txapela irabazi dezala opa diegu.

Liburutegia

Urte askoren ondoren, liburutegi edo biblioteka zabaldu da nahi duen guztientzat. Geroago Kale Nagusiko Zuloaga jauregian jarriko den areen —hala diote behintzat—, orain Itsas Etxeak utzitako aretotan jarri da.

Irakurtzera edo ikastera joan nahi dutenentzat, badaude 40 eserleku edo ikasleku. Liburuak, berriz, 2.000 inguru, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak. Badira enziklopedia, historia, arte, elerti, eleberrri (nobela), fisika, kimika, natur zientzia, etabar, etabar.

Enziklopedia edo halakorik ezik, etxera eramán daitezke, etxean irakurtzeko, eta 15 eguneko epean bihurtzekotan. Ez dago ezer ordaindu beharrik, noski.

Liburutegia irekita egongo den ordutegia, honela da:

- astelehenetik ostiralera,
- 10-tik 13-tara goizez,
- 4-tik 8-tara arratsaldez.
- larunbatetan,
- 10tik 13,30ra.

Lorategia

Aireportuko bidetik Hondarririra sartzen zarelarik, begibistan agertzen da herriaren silueta: Alde Zaharreko teilatu zorrotzak, Gazteluaren horma galant eta lodiak, Parrokiaren dorre eta inguru ikusgarria, Kasinoaren jardindegia, Santa Mariaren arkoa, harresi ikusgarria... Bisitaria edo ibilakia ezin da aspertu halako koadro ederretz.

Baina, o zorigaitz kakaia!!!, Zumardiko **Alamedako arbolea** parera iristen zara, eta akabo edertasunak!, akabo politasunak! akabo zoramenak!, akabo herri xarmantak!...

Zumardiko errekatxoa, edo hibaixoa, eta maria bizitan Zumardiko etzeraino ailegatzen zen kanala, den dena **zaborte-gi zikin eta nazkagarria** bihurtu da. Nork? Nola? Noren utzikienaz?

Herriko sarrera, kakaz bete dago. Denetik dago zaborte-gi lotsagari horretan: komunak, koltxoak, eskonbroak, plastikozko lata zaharrak, pintura potoak, oheak, guzpilak, orinalak, sukalde zaharrak... Ez galdetu zer dagoen, baizik zer ez dagoen.

Hondarririko Aste Santua ospetsua omen da. Urtero aipatzen dute egunkariak gure herriko **prozezioak bezelakorik ez dagoela**. Ba, martxa honetan, **ONGI ETORRI berezi**ena datorren hilean, edo **primadera**ko ilintan, edo **udako brisetan**, Zumarditik barrena herri sartzeko balorea izango duen bisitari maitagarri guztio!

Ezkia

Ezkia hitza entzun edo irakurri, eta gehienok ez dakigu zer esan nahi duen. Horretaraino iristen da gure euskararen eza-guera. **Ezkia**, erdaraz "tilo" esaten den zuhaitzaren euskal izena da.

Euskal Herri osoan ez dira Hondarriribian dugun bezalako **ezki** askorik izango. Hondarriribian, Moriscot aurrean, Bar Larraen parean dagoen bezalako **ezkirik** ez da nonahi ikusten. Laster beteko da ostoz eta orritz. Berdetasunik ederrenez jantzikoa da udaberrian. Eta herritar guztiak konbidatzen ditugu gure **ezkiaren** haunditasuna ikustera, ikusgarria da benetan eta.

500 edo 600 urte izango ditu gutxienez. Baina bai omen da bota nahi duena. Eta badugu hori egia izan daiteken sineste-ko arazoiren bat ere. Zeren behin batean, Udaletxeko tekniko bati entzun genion "HONDARRIBIKO KALEETAN ZU-HAITZ GEHIEGI ETA HAUNDIEGI ETA TOKATZEN EZ DIRENAK DAUDELA"...

Jaizkibelen hemen bertako zuhaitzak

"BASATI" izeneko Hondarririko Institutoko Ekologia Taldeak esperimendu bat nahi du eraman aurrera Jaizkibelen. Mendi honen egoera ikusita, gazte talde honek lanari ekin nahi dio, eta Euskal Herriko zuhaitz klasekoak landatzen hasi. Harritza, pagoa, urkia, gaztaina, gorostia, etabar.

Lur eremu bat eskatzen diote Udalarri, lan horren esperimendu hori egiteko, hasiera batelatan 150 m² inguru, eta tokirik egokien bezala **ERENZIN—BURKAITZ** aldean izendatzen dute.

Iniziatiba jatorrtzat jo beharra dago, gazte hauen ideia. Eta lagundu egin behar zaie.

Lupe



ARRANTZA

ZORIONEKO EUSKARA

1.979ko Maiatzako plenoan, Hondarribiko Udalak inoiz ez bezalako erabakia hartu zuen: "Herriko Kartel Guztiak Euskaraz Jarriko Zirela".

1.983ko Abuztuaren 28ko plenoan, Hondarribiko Udalak beste erabaki hau hartu zuen: "Herriko Kartel Guztiak Euskaraz Jarriko Zirela".

1.987ko Martxoaren 8an, atera ziren argazki hauek.



Otsailak izen txarra, baina emaitza onak

Arrantzan jarraitzen duten barku txikientzat, ona izan zen Otsailaren hasiera. Bazuten egunero arrantza polita. Esate baterako, lehenbiziko astean, batzaz beste egunero 800kg. legatz, 1.050 pztan.; 4.000 kg. mediana, 880 pztan.; eta beste 4.000 kg. peskadilla ekarri ziren, 690 pztan.

Arrosela, berriz, ez dakigu nora joan den. Inguru honetan behintzat oso gutxi hatzematen da. Garai bateko arrantzak gogoratu, eta orain eguneko 10 kilo besterik ez dela hatzematen... Noski, prezioak ere horrela egin behar gero: 1.300 pezetetan dabil kiloak.

Hilaren 11, 12 eta 14an eguraldi txarra egin zuen, eta barkuak etxean geratu ziren.

"Askoten" ezik, agur benhur

Lehendik ere bagenekien Hondarribiko arrantzaleok Askote bezalako kalderorik ez dugula inguruan. Baina aurren nabarmenago ikusi dugu hori.

Lizentziak banatu beharrean aurkitzen gara, eta guztiok ezin gara joan Askotera. Baina lehen, Askotera ezin zirenak joan, Gorrara, edo Gaztelura, edo beste kaladeroren batera joaten ziren, eta beti ekartzen zer zerbait. Adibidez, Askotetik 200 kilo ekartzen baziren, bestetatik 70, 80 edo 100 ekarriko ziren.

Orain Askoten bakarrik dago arraia, eta orduan, lizentziarik gabe tokatzen zaien, ez dira joan ere egiten itsasora, gastotarako ere ez dute ateratzen da.

Otsailaren hirugarren asteak eguraldi ona ekarri zigan. Egunon atera ginen itsasora, eta arrantzak ere ongi joan ziren, nahiz eta prezioak piska bat jetsi: Legatzak, 1.100 pta. egin zuen; Mediana, 950 pta.; eta peskadilla, 780 pta.

Antxuari begira

MNartxuaren lehenbiziko eguna izan da barkuak antxuatuan hasteko eguna. Kostera berriaren hasiera, esperantzak eta beldurrezkoa izaten da beti. Izan ere, nor daki zer gertatuko den?

Joan zen urtekoa bezalakorik, behintzat, ez genuke sekula santan berriro gertatzerik. Gatazka besterik ez, eta antxua inon ez.

Arau edo reglamentuak, lehenguek dira: eguneko 6.000 kiloko topea izango du barku bakoitzak.

Prezioak ere, minimoak, honela:

—Kiloko 35 buru arte	200 pta.
—Kiloko 35/45 buru arte	140 pta.
—Kiloko 46/90 buru arte	100 pta.

Kostera ekainaren 30 arte luzatuko da. Lau hilabete, beraz, antxua hatzeman nahian.

Eguraldiak asko esan nahi du, uren tenperaturak... Ea suerte ona dugun!

Azkenaldi eskasa

Otsailaren azkenengo astean, behera erori dira bai arrantza eta bai prezioak. Legatzak, 150 kg. sartu dira eguneko, batzaz beste, 1.100 pztan.; Mediana, 1.000 kg., 850 pztan.; eta Peskadilla, 1.500 kg., 690 pztan.

Berdela

Eta zer esan berdelari buruz? Joan den urteko prezio minimo berbera jarri zaio aurren ere. Jakin nahi nuke nik beste halakorik inon gertatzen den, adibidez, dendara joan eta lehengo urteko eta aurreragoko eta oraindik aurreragoko urteko prezio berberekin zer dagoen?

32 pezeta basterik ez kilo berdela. Eta askotan ezin saldu prezio horretan ere. Gaizki bizi gara! gero!!

Eta hegaluzea?

Hona hemen Hondarribiko arrantza-leentzako beste problema gogorra. San Pedroak gaimean dira, eta hegalezterako kostetara joan behat itsaso zabalerak... Baina zer egingo dugu lehengo urtetik konjelatuta dauzkagun 500.000 kiloein?

Andres



ESKIAK PREST!

Ikasketak bukatzerakoan egiten ohi diren bidaiak, nahiko buruhausteak sortzen dituzte lekua aukeratzeko garaian. Beti, gero eta urrutirago joan nahi da.

Hondarribiko Ikastola, beste zenbait ikastetxe bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituzten bidaiak baliatuz, Candanchura abiatzen gara, eskiatzera.

Martxoko lehenengo astean 8gn. mailako talde bat fondoko eskian ibili dira. Eguraldi onaren ondorioz, zenbait antolamenduak itxiak egon arren, fondo egiteko aukera izan dute.

Oso ondo pasa dute eta penaz itzuli direla esan beharrik ez dago!

Garbi ez dagoena da zer gertatuko den Martxo bukaeran joan behar duen bigarren taldearekin. Dirudienek, Alpino motailateak aukeratu zuten zenbait talde ezezkio edo kantzelazioa jasotzen ari dira, elurra falta dela ta.

Dena dela, ikasle hauei itxaropena gelditzen zaie, fondo egiteko ez omen da behar hainbeste elur eta dagoenarekin nahikoa izango da.

ZUHAITZ EGUNA

Elurra eta lhauteiak izan dira egun honen atzerapena sortu dituztenak.

Horrela, Martxoak 10, astearteak, 6gn. mailako ikasleak Jaizkibel mendira abiatu dira Zuhaitz Eguna ospatzera.

Bertan, ikastetxe guztietako ikasle eta irakasleak elkartu dira ekintza honetan parte hartzeko. Txandan zai egon behar izan dute, zeren nahiz eta zuloak eginak egon, bost edo sei haitzur basterik ez ziren zuhaitzak landatzeko.

Bukatu ondoren, talde bakoitzak bere aldetik Herri aldera abiatu da, egun eder-rra igarota.

DATORREN URTE ARTE!

lhauteiak pasa berriki dira eta aurren ere eguzkia kalera irten da eguna ospatzera.

Goiza jokutan igaro ondoren, San Pedro kalean bukatu genuen, urtero bezala. Momentu horretan sumatzen hasi zen zein egunetan sartzen ginen, guraso eta umeen algarak kalea bete bait zuten.

Eta tradizioa bihurtzen ari den bezala, Ikastolako partaideak arratsaldean Zumardian bildu ginen jaialdiari jarraipena emateko asmoz.

Han bai zegoela giroa!

Antolatzen diren jokuengatik, bai Zumardian bai Herri osoa haurrez gainezka agertzen da.

Arratsalde horretan Hondarribia haurrena izan zen!

Hain gustura ikusi ondoren, indarrak eta gogoak sortzen zaizkigu gero eta hobeto antolatzeko.

Ea datorren urtean, aurren bezain ondo igarotzen dugun!

ESKOLETAKO ORRIA

"ONDARRIBIAKO KONDAIRA"

Hondarribiko ikastetxeetan Jose Mari Etxaburu "Kaminazpi" k idatzitako liburuen zenbait ale banatu dira, zentro bakoitzeko liburutegian egon daitezten. Udaletxeko eskaintza bat da, Euskara Azpibatzordearen proposamenaren ondorioz.

DATORREN KURTSOA: 1987/88

Datorren ikasturterako matrilulazio edo izen emateak martxan daude, Itzisi da ba zentroaren aukeraketa egiteko unea.

Urtero bezala, aurren ere Hondarribiko Ikastolara joan nahi dutenak bi lekue-tan eman dezakete izena: Harma Plaza, (Eskolaurrea kokatuta dagoen etxean) eta Aginagalde, (lofinizak eta O.H.O. dauden ikastetxean).

Hodei



AITONA

Kalearen ixiltasuna aldebereko hots batek hausten du. Makila luze eta sendo baten hotsa, bastoi baten hotsak hain zuzen ere. Bastoiaren laguntza pasatzen ari den aitona zahar baten esku zimurtsuak darama bastoia.

Aitona zahar haren galtza urdinak, bere tripa handiaren azpian gelditzen dira.

Arrastaka daramatza bere zapata zahar eta beltzak, azpitik galtzerdi laukidunak agertzen direlarik.

Aitona haren aurpegia ume alai batena bezain irribartsua da. Bere aurpegi zimurtsuak bere begi urdinak estaltzen ditu. Gaztetan urdin argi ziren begiak orain iluntzen hasiak dauzka.

Begi hauen estalpe, bere bekain lodi eta zurixkak dira, aurpegiko ezaugarriak nagusienak. Hauek gora, behera, eta aldeetara mugitzen ditu, bere barne sentimenduaren adierazpen gisa. Bi bekain artetik sudur luzea; aurpegiari aldamenka arrano itxura emanaz.

Bere ile urdin eta ugari haien artetik, belarriak ageri dira.

Ilea estaliz eta bere arbasoen euskal ohitura jarrailuz, buruan kapelua darama.

JOSUNE DARCELES

Ikastola 7, maila

BASERRIA

Urtero gure eskolan Kontsumoari buruzko lan esperimentalak egiten ditugu; iaz apirilak 14tik maiatzak 9ra, 3n., 4n. eta 5n. mailakoek Hondarribiko baserriak aztertu genituen.

Landaren helburuak hauek ziren:

1) Hondarribiko ingurune fisikoak, ingurune hortan baserrien kokaketa eta hauen harteko komunikabideak ezagutzea.

2) Baserriaren errealitate ekonomikoak, ahal zen neurrian aztertzea.

3) Kondaira eta tradizioak, gure herriko ezaugarriak bezala bizitzea.

Pentsatuko den bezala, lan horren dokumentazioa eskolan ez geneuzke, baserriara jo behar izan genuen haren bila.

Baserrian sartuz, errealitate ekonomikoa eta soziala aztertzeak aukera ona izan genuen. Hemen, baserriaren jarre-
ra ona eskertu behar dugu. Beuren pazientzia eta irakasteko gogoagatik ez balitz izan, ezin genezakeen ezer egin, lan hau teorikoki egitea ez bait zen gure helburua.

Gure esperientziaren emaitzak baikorrak eta interesgarriak izan zirela esan dezakegu, gure haurrek Hondarribiko baserriaren ikuspegi errealagoa bait dute.

M.ª Jesus eta Pello

"Ama Guadalupeko Ikastetxea"

HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

JAIOZTAK

URTARILAK

29: NARDOA YUSENKA Lopez Alza
Federiko eta Junkalen alaba
Santiago kalea, 2

29: JON ANDER Amunarriz Esuain
Meltxor eta Miren Idoiaren semea
Loraitz-bat, 3.

31: GAIZKA Tijero Urrestarazu
Jabier eta M. Aranzazuren semea
Olabide, 5.

OTSAILAK

4: HIBAI EDWARD Harris Oviedo
Edward eta M. Victoriaren semea
Bernat Etxepare, 1.

9: ANTONIO Garzia Gamero
Antonio eta Kandidaren semea
Gibeleta, 6.

11: RAMON Velasco Lopez
RAMON eta Karmenen semea
Gibeleta, 6.

12: NATALIA Amezagaga Amunarriz
Jabier eta M. Begoñaren alaba
Olabide, 14.

20: MAYI Sunsundegi Yarzabal
Juan Karlos eta M. Asunzioren alaba
Zelaiburu baserria - Arkoll.

22: IÑAKI Ortego Isasa
Jose Antonio eta Izaskunen semea
Damarri, 4.

23: UXUE Gopenola Parra
Agustin eta M. Luisaren alaba
Eguntxinta kosta.

28: ANDER Olaskoape Villar
Andres eta M.ª Jesusen semea
Glim, 3

MARTXOAK

1: JON Gajate Emazabel
Juan Antonio eta M.ª Luisaren semea
Itsasazpi - 3

2: GONZALO Sasiain Pernia
Rafael eta M.ª Jesusen semea
Kale nagusia, 5

3: ITZIAR Sagarazu Eguren
Juan M.ª eta Anaren alaba
Begoña etxea - Amute.

EZKONTZAK

OTSAILAK

7: JOSE JABIER Campaña Pinedo
- 26 urtekoa - Hondarribiarra
M.ª JOSE SUNSUNDEGI AMUNARRIZ
- 25 urtekoa - Hondarribiarra

14: JUAN MARCOS Emazabel Alonso
- 24 urtekoa - Hondarribiarra.

EULALIA Zarguieta Arze - 22 urtekoa -
Donostian jaioa eta Hondarribian bizi dena.

26: JABIER Murga Martinez - 31 urtekoa -
Irundarra.
M.ª KARMEN Castro Longo - 31 urtekoa -
Hondarribiarra.

HERIOTZAK

URTARRILAK

30: RAMONA Arechavaleta Asua
86 urtekoa. Cuban jaioa
Magnolia etxea. A. Alonso kalea

OTSAILAK

3: SANTIAGO Txapartegi Iriondo
60 urtekoa. Zumaian jaioa
Guadalupeko Ama, 14.

8: TOMAS Ortiz Uranga
77 urtekoa. Hondarribiarra
Arrantzale Auzoa, 3

8: JOSE M.ª Arretxea
59 urtekoa. Zaragozan jaioa.
San Pedro, 67

12: FRANCISCO Arruabarrena Yarza
74 urtekoa - hondarribiarra
Iparralde kalea, 7.

12: MANUEL Massa Serrano
82 urtekoa. Palencia jaioa.
Ugarte etxea. Mendelu,

16: CARMEN Alonso Iglesias
87 urtekoa - Logroñon jaioa.
Laula-enea, 15.

22: RAMONA Oiarbide Azpeitia
84 urtekoa. Seguran jaioa.
Gornus baserria. Montaña

22: MILAGROS Ojanguen Iarrea
47 urtekoa - Hondarribiarra
Harma Plaza,

25: BAKARTXO Tife Aseginolaza
53 urtekoa - Hondarribiarra
Soroetagain, 5

28: Angel Ortiz de Lejarazu Lenjarán
93 urtekoa. Manuagan (Arabai) jaioa
Gibeleta, 20.

MARTXOAK

2: Clara Susperregi Sagarazazu
52 urtekoa. Hondarribiarra
Miramar 7

IZURDE URPEKO EKINTZAK, INOIZ BAINO BIZIAGO

Esan dezagun elkarte hau duela 11 urte sortu zela, hau da, 1976. ean. Sortzaileen artean J.R. Garaño, S. Salaberria, I. Ochoa, A. Movellan, T. Errandorena, J. Larrarte, S. Gonzalez, J. Achucarro, L. Errazkin, zeuden. Elkarte honek eguneroko zailtasunak gainditzen jakin izan du eta etorkizunari baikortasun handiz begiratzen dio bere 150 bazkideengan lan egiteko go-goa bait dago.

Ekintzei dagokienez 1986 urtea azken urteetako gogorrenetarikoa izan da:

— Otsailan, apirilaren bukaera arte luzatu den eskafandra ikastaroari eman genion hasiera. Honelako ikastaroak aste bukaeretan izaten dira, bi saiotan banatzen direlarik; alde batetik saio teorikoa larunbat arratsaldeetan eta bestetik praktikak igande goizetan. Ikastaro hauen bukaeran bigarren eta lehenengoko urpekari agiriak lor daitezke azterketa teoriko eta praktikoa bat gainditu ondoren.

Hilabete honetan bertan, Donostiako Reta Sociedadeko urpeko sailaren ohizko laguntzaz astebeteko urpeko zine emanaldi antolatatu zen erabat dohainik, halaber, ikastetxeetako umei zenbait emanaldi eskeini zitzaizkien.

— Maiatzan, aletaz egiten den, Bidasoako Nazioarteko jaietsieri ekin genion. Jaietsiera honen luzera hamabost bat kilometrotakoa da eta Endarlazako zubitik hasita Hondarriribiko kaian bukatzen da. Esan behar da antolaketa zail xamarra izan zela, batez ere, igerilarien kontrolari dagokienez. Denen den Izurdeko aletadun igerilari bipil eta ausartak lehenengoetako postuen artean iritsi ziren. Beraien artean Begoña Salaberria, Javier Goldarazena, J.M. Esuain, Gabriel Pastor, gailendu ziren.

Beranduago, Izurdeko Talde honek beste zenbait irteera egin zituen Euskadi eta Estatu mailan. Honela, Ordiziako igerilekuan egindako Estatu txapelketan, Huescan, Iparraldeko Arturriko jaietsieran, Donostiako Hiru Hondartzen eta Yesako aintziraren igeribideetan parte hartu zuten gure igerilariak, elkartearen izena buruko postuetan aurkitu zelarik beti.

Aurten igerilari taldea J.R. Garañoren agindupean dago eta gogorki ari dira monoaletaz entrenatzen, beranduxeko lehiakatu ahal izateko, erabat desberdina bait da igeri egiteko modua ohizkoarekin parekatzen badugu; gainera, 100 ordu baino gehiagoko praktika eskatzen du monoaletaz igeri egiteak, gero emaitza onak ikusi nahi badira. Beste aldetik, materiale berri hau erostek diru franko suposatzen du elkartearentzat.

— Abuztuaren eta Uztailaren gaztetxoak irakaskuntzari ekin genion Gipuzkoako Txit Goren Foru Aldundiko laguntzaz. Eskafandra autonomo, aletaz egindako ige-

KIROLAK



riketa, eta urperaketa libreko ikastaroak eman ziren.

— Irailan, herriko jaiak zirela eta ohizko itsas-jaiak ospatu zen Hondarriribiko Kofradia inguruan, kukaña eta ur-joko ugari egin zirelarik. Jai hauekin bukaera eman genien urteko ekintzei nahiz eta gure urpekariak kantaurrei itsaso zoragarrian murgiketak egiten jarraitu.

— Abendu aldera urteroko biltzar nagusia egin zen Izurde elkartearen zuzendaritzan aldaketa garrantzitsuek eman zirelarik, elkarteak historiakoei txanda hartuz, nolabait. Zuzendaritza honela geratu zen:

- | | |
|--------------------------------|--------------------|
| — Lehendakaria | Javier Esuain |
| — Lehendakari ordeko lehena | Angel Villamor |
| — Lehendakari ordeko bigarrena | J. Carlos Gonzalez |
| — Idazkaria | Jaione Salaberria |
| | Karmelo |
| | Goikoetxea |
| — Urperaketa Eskola | Miguel Iturralde |
| — Biologoa | Alfredo Vélez |
| — Liburutegia, zinea | Patxi Salaberria |
| — Aletak | Javier Goldarazena |
| — Materialeak | Antonio Dormido |

- Elkarte
- Urpeko ehiza

Eugenio Fernandez
J. Ramón Garaño.

Juanjo eta Erramun

KIROLAK

Larunbatero, beste egunetan bezala, Hondarriribiko neska mutilak goiz jeikitzen dira. Gurasoak konten geldituko lirateke ohean, baina ezin da. Semeak, alabak, pilota, atletismo, futbola edo beste kirolen bat du, eta goiz ibili behar da.

Hartu poltsa, eta kalera... Jostaldi, Aginagalde, Instituto..., jolastokiak nonahi dira, eta denak betekiko dira neskamutilez.

Hilean behin, hondartzan atletismoa egiten dute. Asko dira parte hartzaileak, baina asko dira baita falta direnak ere. Eskoletan bultzatzen da bat falta oraindik.

Gipuzkoa mailan jarraitzeko, futboleak; Saint Maur, klasifikatu alebiretan; etalkastola: infantiletan, benjaminetan, eta infantil femeninetan.

Datorren hilean hasiko da Hondarriribiko Kopa.





DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu.

Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena: AURREZKI-KUTXA MUNICIPALeko KUTXA TXARTELA.

Estatuko 2.500 kutxazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua zabaldu besterik ez bait duzu

egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hondarribiko guzti hauetan dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA
Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELAekin. ■

RESTAURANTE ABARKA
Baserria Babokio

RESTAURANTE ANDROA
Bekas Etxepare, 9

HUSTAL ALVAREZ QUINTERO
Bekas Etxepare-Etxepare Miramar

RESTAURANTE AQUARIUM
C Zuloaga, 6/8

SUPERMERCADO SOKIA
Centro Comercial Sokoa

MUEBLES ALONDA
Centro Comercial Sokoa

ELECTROMUEBLES GEURIA
Fuenterrabia, 19

SENIA
Graf. Leizaola, 4 baxo

ELECTRICIDAD KALA
Javier Ugarte, 7 baxo

CALZADOS IKUSI
Javier Ugarte, 7 baxo

IZORRI
Javier Ugarte, 8

RESTAURANTE ARRAUNLARI
P. Jario (Etxe Aita)

MUEBLES MARTINEZ ORTIZ
P. Jario, 12

KUTXA
P. Jario, 2

BOUTIQUE ROS
Paseo, 21

RESTAURANTE JAIZURRA
Pabellón Vasco de Lizarribia

RESTAURANTE BEKO ERROTA
R. Aizola

HOTEL JAUREGUI
San Pedro, 41

TXALUPA
San Pedro, 41 baxo

ORIOITZ
San Pedro, 4

ITXAS LOBE
San Pedro, 45

OPTICA JAVIER
San Pedro, 22

RESTAURANTE ARRANTZALE TXORDO
San Pedro, 21

RESTAURANTE ZERIA
San Pedro, 43

RESTAURANTE ITXASPE
San Pedro, 52

MARINOS
San Pedro, 57

ELECTROMUEBLES GEURIA
San Pedro, 8

ASADOR MANOLI
Santago, 41 baxo

RESTAURANTE OSTARTE
Santago, 72

JUAN ALCAIN JAUREGUI, S.A.
Zuloaga

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD
Zuloaga, 6/8

GAZTELU SPORT
Zuloaga, 18

ASADOR KUPELA
Zuloaga, 4

GARDEN
Zuloaga-Gazte Martiako Etxe

JOYERIA GARIN
Zuloaga, 34

REGALOS NORAY
Zuloaga, 38

**AURREZKI-KUTXA
MUNICIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

UDALA

● Aspalditxo puskatu zen alderdi politiko honen ondorioak ez ziren garbi azaltzen gure herriko Udalan, ia inork ez zekielako zein zinegotzik jarraitzen zuen PNvN, eta zein pasatu ziren Eusko Alkartasunera.

Azken hauteskunde munizipalean, PNvN hamar zinegotzi lortu zituelarik, beurretako batek bortxaturik, hamarrek esan behar izan dute zein alderditan aurkitzen diren. Horrela bada, azkenetako pleno batetan, hau aitortu zuten banan bana: Alfonso Orónoz (alkatea), Jose Migel Izagurre, eta Felizitas Gaztañaga, **EUSKO ALKARTASUNERA** pasatu direla.

Beste zazpirak: Zuaznabar, Larrarte, Mendizabal, Concepción Portu, Lopez, Lizarraga, eta Olabera jaun andreak, **PNvN** jarraitzen zutela esan zuten.

● Berri hau kendu ezker, ez dago alibiste oso berezirik. Sumatzen ari da piskana-ka, laster datozela hauteskunde berriak, eta jendea jakin minez dabil nork jarraituko duen barruan, alkateak ere jarraituko ote duen, etabar.

Baina beti da zer bait herriari kontatzeko eta horixe egingo dugu hitz gutxitan.

● Garrantziko gai bat badugu behintzat, eta gure ustez herriak ezagutu egin behar du. Ez dakigu inoiz Udal langilerien bati espedienterik ireki zaion, baina dirudienez oraingoan bati tokatu zaio, eta Udaltzain bati hain zuzen.

Udaltzainburuak txosten bat egin dio Alkate Jaunari, non agertzen zen, **udaltzain batek zenbait arazo sortu duela, nahiko grabeak**, eta esaten genuen bezela espedientea ireki zailo.

● Hondarribiko **Kai Berriaren** gaia noiz-pait bukatuko da, baina auskalo bitartean, zenbat leku bete duen eta betekoe duen, egunkarietan. Oraingo honetan ere bada-
go zer esanik gaiari buruz, Eusko Gobernu Departamentu de Política Territorial y Transportes delakoak, Hondarribiko Udalak bere jarrera ager dezala eskatu dio, eta Gobernu batzordeak zera erantzun dio, alegia, ezin duela jarrerarik agertu, beure ustez beharrezko diren zenbait azterketa egiten ez diren bitartean.

Eсандako azterketa horien artean, Hondarribiko Udalak, Santander-eko Unibertsitateko Leonardo Torres-Quevedo Fundazioarekin Konbenioa sinatu du, hauek, "Estudio Hidrodinámico y Sedi-
mentológico para un aprovechamiento de la ensenada de Hondarrabia" izenarekin bataiatutako azterketa egingo dute 3.000.000,- pezetaren truke. Gaia estabaidatua da, eta oraindik, lehen esaten genuen bezela leku asko bete araziko duena egunkarietan eta herriko jendearen elkar hizketetan.

● Irun eta Hondarribiko Udalen artean "Mancomunidad de aguas del Txingudiko Txingudiko Uren Mankomunitatea" erai-
ki nahi da. Zergaitik izango beti erdaraz-
ko izena aurretik joan beharra, bilinguis-
moa ote? edo erderolinguismoa?, tira, ti-
ra, orain ere txorakeri horiek, ez ote da
berdin lehen erdaraz eta gero euskaraz,
gainera erdaraz bakarrik jarri balute ere,
berdin, total denok uletzen dugu eta. Bai-
na ni zertaz ari nintzen? Delako Mankomu-
nitate hori egin nahi da, bai ur zikin, eta
bai ur garbi guztien tratamendurako. Ha-
sieran ur zikinentzat bakarrik izan behar
onuen zuten. Orain, garbientzat ere bai.
Gaia ez da oso argi. Batzuentzat, Hon-
darribiak bere ur garbien arazoa konpondu-
rik bai dauka orain dela urte batzutatik, eta
oraingo honetan nola aterako litzatekeen ez
bait da garbi ikusten, eta gauza bat, Man-
comunidad de Aguas del Txingudiko
Txingudiko Uren Mankomunitatetik bida-
litzako estatutoen aurreproiektu osoa **erda-
raz bakarrik idatzia dago, eta ez dago es-
kubiderik horretarako.**

● Okupazio-lantegiak, hauek ere mar-
txan jarri nahi dira baina ez da hain erre-
za, arazo asko sortzen dira, igeltzeritza
lantegia jarri nahi zen eta taldea ez da be-
har bezela osatzen, dena dela azkenean
zerbait lortuko delakoa gauda, oso inter-
resgarria bai eta honelako lantegiak mar-
txan jartzea.

● Herriko eskola publikoak zenbait arazo
dituzte, zenbait gauza ez bait daude be-
har bezela, obrak direla, jolas lekuak dire-
la, eta abar. Kultur batzordeak zera era-
baki du, urtero eskola guztietan ezin dela
obra haundirik egin, eta orduan partxeok
besterik ez dira egiten. Beraz hemendik
aurrera urtero eskola bateko premiak be-
teko dira, eta honela eskola guztiak behar
den bezela gelditu ditezke urte batzutan.
Bestalde, lan txikiak urtero eskola guztie-
tan egingo dire.

● Paper zaharretan ibiltzea gustatzen
zaion jende asko dago, eta zerbait auri-
tzeo posibilitateak baldin badira gehiago
oraindik. Ba Hondarribiko **Udaletxean da-
goen artxiboa** ez da txantxatokia, orain
gainera gutxienez gauzak nahiko ordena-
turik eta ongi jarriak daude.

Orain dela bi edo hiru urtetik hona hor
dabilta Begoña Andrés eta Gabriela Vi-
ves lan horretan, emakume atseginak eta
edozer gauza bilatu nahi baldin baduzu la-
gunduko dizuten horietakoak. Bada Uda-
lak aurtengo urtean lan hortan jarraitze-
ko 409.500,- pezetako subentzioa onartu
du.

● Urte mordska dira **Bidasoako Txirrin-
dulari Itzuliza** egiten dela. Lehen urte
batzutan egin zuten, gero denboraldi batean
ez, baina badira bostpasei urte berriro ere
martxan jarri zela. Azkeneko urte hauetan
gure herriak eta baten bukaera eta beste
baten hasiera ikusteko aukera izan du-
ela, aurtengauz ez ziran oso argi ikus-
ten baina Udalak, kultur batzordeak bul-
tzaturik 175.000 pezetako subentzioa
ematea erabaki du. Aurtengauz txirrin-
dulariak gure kaletan zehar ikusteko aukera
izango dugu.

1987 OTSAILEKO EGURALDIAREN DATOAK

Hondarribiko aireportutik jasotak

Bataz besteko tenperatura	7,3
Maximen bataz bestekoa	12,3
Minimen bataz bestekoa	5,0
Temperatura guztiz gorena	23,0
Temperatura guztiz beherena	-1,8
Euri-litroak	219,5
Egun euritsuak	28
Ordu eguzkitsuen kopurua	64,9

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi
nahi duenak, edo gure berri jakin nahi
duenak, Udaletxeko 642340 telefonon-
jo beza, edo bertara joan eta Euskara
Azpibatza de galdetu. Baita, Korre-
setan Udalak duen posta kutxara (apar-
tado de correosera) bidali idazlanak.



Ilbistieta berri